

1. ARIKETA FUSIOA XURGAPENAGATIK

REX S.A. eta PROSA S.A. sozietateen akziodunen Batzar Orokorren deialdia egin da, PROSA, S.A.k REX, S.A. sozietatea xurga dezan aztertzeko eta erabakitzeko.

Bi sozietateen balantzeak, fusio prozesurako oinarri izango direnak, honako hauek dira (€tan adierazita):

REX S.A.			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ibilgetu Materiala	13.500	Kapital Soziala (BN=10€)	15.000
(I. materialaren Am. Metatua)	(5.000)	Erreserba legala	3.000
Izakinak	4.500	Aurreko ekit. emaitza neg.	(4.500)
(izakinen balio narriadura)	(1.500)	Epe Luzeko zorrak	3.000
Bezeroak	3.500	Hornitzaileak	1.500
Diruzaintza	3.000		
-----		-----	
GUZTIRA	18.000	GUZTIRA	18.000
PROSA S.A.			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ibilgetu Materiala	50.000	Kapital Soziala (BN=10€)	35.000
(I. materialaren Am. Metatua)	(10.000)	Erreserba legala	7.000
Izakinak	15.000	Aurreko ekit. emaitza neg	(2.500)
Bezeroak	5.600	Borondatezko erreserba	8.000
Kobrantsa zalantzag. bezeroak	1.500	Ibilg. Hornitzaileak	7.500
(Merk. kred. balio narriadura)	(1.500)	Hartzekodunak	7.000
Diruzaintza	1.400		
-----		-----	
GUZTIRA	62.000	GUZTIRA	62.000

Bi enpresen bat-egite hitzarmenean, honakoa adostu zen:

- REX S.A. 26.500€tan balioetsiko da, bere ibilgetuaren balio erreala 18.000€ izanik.
- PROSA, S.A. sozietatearen akzioak, bere urteko batez besteko kotizazioa, 20€/tit, gehi %25eko gehikuntzan balioetsiko dira.

Azkenik, bi sozietateen akziodunen Batzar Orokorrek bat-egitea adostu zuten hitzartutako baldintzetan. Sozietate xurgatzaileak bere kapitala, behar adinako zenbatekoan zabalduko du, xurgatua izango den sozietatearen ondarea bereganatzeko.

Bi sozietateen arteko fusio prozesua kontabilizatu.

2. ARIKETA FUSIOA XURGAPENAGATIK

KAIXO, S.A. eta AGUR S.A. sozietateek bat-egiteko akordioa sinatu nahi dute, non KAIXOK AGUR xurgatuko duen.

KAIXO, S.A. sozietateak 12 miloi euroko kapitala dauka, guztiz despoltsatuta eta nominal bereko 3 milioitako akziotan banatuta. Bere akzioen balio teorikoa fusiorako 12,5 eurokoa da.

AGUR, E.A.k, fusio aurretik onartutako balantzea aurkezten digu:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA + PASIBOA	
(213) Makineria	24.000.000	(100) Kapital Soziala	12.000.000
(281) Ibilgetu Material. Amortz. Metatua	(15.000.000)	3.000.000 akzio, BN = 4 €	
(300) Salgaiak	3.750.000	(112) Legezko erreserba	2.400.000
(430) Bezeroak	19.800.000	(113) Borondatezko erreserbak	2.400.000
(572) Bankuak	3.450.000	(141) Zergatarako hornidura	3.000.000
		(17) E/Lz. zorrak	3.450.000
		(520) E/Lb. zorrak	4.500.000
		(400) Hornitzaileak	8.250.000
GUZTIRA	36.000.000	GUZTIRA	36.000.000

AGUR elkarteari buruz informazio osogarria:

- Makineria 1.500.000€tan gainbaloratuta dago.
- Salgaien kontaketa eta balioespena eginda, hauei dagokien balioa 3.450.000 €takoa da.
- 3.000.000 €tako merkataritza-fondoa onartzen da.

ESKATZEN DA:

- a) Kontabilizatu sozietate bakoitzak burutu beharreko eragiketa guztiak.
- b) Kalkulatu fusioaren ikuspegitik, akzioen balio teorikoa.
- c) Kalkulatu KAIXO elkarteak jaulki beharko dituen akzioak AGUR sozietateko bazkideak xurgatzeko.
- d) Kalkulatu, AGUR sozietatearen 200 akzio dituen bazkide batek, KAIXO elkartetik zenbat akzio jasoko dituen.

3. ARIKETA FUSIOA XURGAPENAGATIK

VENTURA, S.A eta **FORTE, S.A.** Sozietateek, bakoitzaren Bazkide Batzar Orokorrak onartuta, fusio hitzarmena aurkeztu zuten; **VENTURA, S.A.**k (eskuratzailerak) **FORTE, S.A.** xurgatuko du.

Fusio-akordioan, ondorengo ere ezartzen da:

- Akzioen trukaketa-erlazioa: xurgatzailearen 4 akzio xurgatutakoaren bakoitzagatik.
- 400.000 €tan balioetsi da **FORTE, S.A.** enpresa. Epe luzeko finantza inbertsioen balio erreala 280.000 €koa da.
- **VENTURA, S.A.**k kapitala zabalduko du. Honetarako, fusio-proiektuan ezarritako trukaketa-erlazioari jarraituta, behar beste titulu-kopurua jaulkiko du. Titulu berriek zaharrek zuten 5 €ko balio nominala izango dute.

Informazio osagarria:

- **VENTURA, S.A.** ren zabalkuntza aurreko kapital-soziala: 500.000 € (100.000 akz.; BN=5)
- **FORTE, S.A.**k ondorengo balantzea zuen bat-egite-datan:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA + PASIBOA	
(211) Eraikuntzak	150.000	(100) Kapital Soziala	100.000
(213) Makineria	400.000	10.000 akzio, BN = 10 €	
(281) Ibilgetu Material. Amortz. Metatua	(250.000)	(112) Legezko erreserba	20.000
(250) E/Lz. Finantza-Inbertsioak ond-tr.	250.000	(113) Borondatezko erreserbak	200.000
(3XX) Izakinak	100.000	(17X) E/Lz. zorrak	180.000
(430) Bezeroak	260.000	(520) E/Lb. zorrak	350.000
(572) Bankuak	40.000	(400) Hornitzaileak	100.000
GUZTIRA	950.000	GUZTIRA	950.000

ESKATZEN DA: Xurgatzaile-sozietatearen bat-egite prozesuaren kontabilizaioa.

4. ARIKETA FUSIOA BAT-EGITEAGATIK

REAL, S.A. eta ATHLETIC, S.A. sozietateek bat egitea adostu dute, ATHLETIC-REAL, S.A. deituko den sozietate berri bat sortuz.

Bi sozietateen balantzeak, fusio prozesurako oinarri izango direnak, honako hauek dira (€tan adierazita):

<u>REAL S.A.</u>			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ibilgetua	40.000	Kapital Soziala	20.000
(Ibilgetuaren Am. metatua)	(10.000)	(4.000 tit. BN=5)	
Izakinak	5.000	Erreserbak	15.000
Bezeroak	15.000	Aurreko Ekitaldietako Em. Negatiboak	(4000)
Diruzaintza	6.000	Hornitzaileak	25.000
-----		-----	
GUZTIRA	56.000	GUZTIRA	56.000
<u>ATHLETIC, S.L.</u>			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ibilgetua	90.000	Kapital Soziala	90.000
(Ibilgetuaren Am. metatua)	(30.000)	(18.000 tit., BN= 5)	
Izakinak	40.000	Erreserbak	10.000
(izakinen balio narriadura)	(10.000)	(Aurreko ekit. emaitza negat.)	(10.000)
Bezeroak	10.000	Hornitzaileak	30.000
Diruzaintza	20.000		
-----		-----	
GUZTIRA	120.000	GUZTIRA	120.000

Bi sozietateen bateratze prozesuan, REAL, S.A. 60.000€tan eta ATHLETIC, S.A. 100.000 €tan balioetsi ziren.

ATHLETIC, S.A. sozietatea REAL S.A. enpresaren ohiko hornitzailea da eta azkenaldian 5.000€gatik salgaiak saldu dizkio kreditura.

ATHLETIC-REAL, S.A. sozietate berriak bi ondareak jasotzeko akzio nahikoak jaulkiko ditu: JB= 10€ akzio bakoitzeko eta BN=5€ akzio bakoitzeko. Sor litezkeen diferentziak sozietate berriak eskudiruz ordainduko ditu.

ESKATZEN DA:

1. Bi sozietateen arteko bateratze prozesua kontabilizatu.
2. Bi sozietateen arteko bateratze prozesua kontabilizatu, kontuan izanik bi sozietateen bateratze hitzarmenean, REAL, S.A. 45.000€tan eta ATHLETIC, S.A. 100.000€tan balioetsi zirela.